



→ **DISTANTZIA:** 8,9 KM

⌚ **AURREIKUSITAKO DENBORA:** 3 H 40 MIN

↗ **DESNIBELA:** 607 M


LAKARTXELA (1.982 m)

HASIERA:
NA-137. Km 50,4
YEGUACEROS



OHARRA:

- Goi mendiko ibilbidea da.
- Goiko aldean laino itxia ohikoa da; bat-batean sortzen da. Beharrezkoa da urte osoan jantzi beroak eta GPS-a eramatea.
- Neguan gune izoztuak egon daitezke, baita elur-jausi eta eroriko bertikalak izateko arriskua ere. Urtaro horretan egiten bada, beharrezkoa da segurtasun eta autobabes material egokia eramatea.



Lakartxela mendia (1.982 m) Belagua ibarraren gainean nabarmentzen da eta gailur-lerro harkaitzua osatzen du inguruko beste tontor batzuekin batera: Keleta (1.904 m), Ezkieta (1.906 m), eta Binbaleta (1.758 m) ipar ekialdeko isurialdean.

Lakartxelara igotzeko bide motzena Yeguaceroretik (1.375 m) abiatzen da. GR 12ri jarraikiz, bideak gora egiten du desnibel txikiko larreetan barna Arrakogoitiko leporaino. Bertan GR 321 Errege-bideak, GR 321.1 Kontrabandisten bideak eta GR 12k bat egiten dute. GR 12tik jarraituko dugu ipar mendebalderantz, Binbaletako hegalarren ertzetik gora eginez, zirku harkaitzua ikusgarrian barneratzeko. Binbaletako lepotik gora, igoera gogortuko da; azkeneko 160 metroko desnibela oso aldapa pikarretik egin behar da Lakartxelako tontorrera heltzeko.